

## **Arizmendiarrietaren Eguna - 2024ko azaroaren 26a**

Urtero bezala data hauetan, eta Don Jose Maria Arizmendiarrietaren oroimenez, ALE elkarteak kooperatiben munduarentzat interesgarriak izan daitezkeen etorkizuneko gaiei buruzko hitzaldia antolatu du.

Oraingoan, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburu **Juan Ignacio Perez Iglesias**ek eman zuen hitzaldia, izenburu honekin: **“Kultura, oparotasuna eta demokrazia; zientzia bultzatzen duen hirukote bertutetsua”**.

Hirukote bertutetsuaren kontzeptua honela laburbil daiteke:

- Zientzia Kultura iturri da... eta alderantziz.
- Zientziak Oparotasuna sustatzen du... eta alderantziz.
- Zientziak Demokrazia bultzatzen du... eta alderantziz.

Hitzaldian, hizlariak zientziak historian zehar izan duen bilakaerari buruzko errepasso bat egin zuen, ideia hauek nabarmenduz:

1. Zientzia errealitatea behatzeko prozesu batetik eratorritako ezagutzen multzo bat da.
2. Zientzia ez da betierekoa; iraungipena du. Historian zehar, eredu batek beste bat ordezkatu du. Adibideak: Fisika newtoniarra, Einsteinen erlatibitatearen teoriak eta gaur egun fisika kuantikoak zalantzan jarri dutena.
3. Betiereko egietatik hurbilen daudenak matematiketatik eta erlijiotik datozenak dira, baina horien ikaskuntzak beste diziplina eta metodologia mota batzuei erantzuten die.

Era berean, zientziaren eta kulturaren arteko harreman estua nabarmendu zen, adibide historiko esanguratsuekin:

- Teoria kopernikarra, Eguzkia unibertsoaren erdigunean jartzen zuena, zalantzan jarri zuen Galileok, eta horrek kristautasunaren tesi askotan eragin zuen.
- Darwinek gizakia sorkuntzaren erdigunetik atera zuen espezieen eboluzioaren teoria planteatzean.
- Big Bangaren teoriak unibertsoaren jatorriaren ulermena birdefinitu zuen.
- Ilustrazio britainiarrak ondorio kultural sakonak izan zituen.
- Lurrun makinak ekoizpen moduak eraldatu zituen.
- Flemingek penizilina aurkitzeak munduko garapen demografikoan eragin zuen.
- Gaur egun trantsizio klimatikoa, biogenetikoa, digitala, AA...

*Aurrerapen horiek oparotasun eta botere iturri izan dira. Gainera, ondo prestatutako pertsonak dituzten gizarteek, modu kolaboratiboan lan egiten dutenek, zientziaren garapena ahalbidetzen dutela egiaztatu zen, eta hori eraginkortasun handiagoz lortzen dela gizarte demokratikoetan.*

*Halaber, funtsezko ekarpenak nabarmendu ziren, hala nola:*

- John Lockeren "Tolerantziaren filosofia".*
- Karl Popperren "Zientziaren eta demokraziaren sorrera", egungo demokrazien oinarriak finkatzen dituena.*

*Ondorio gisa eta gure ingurunean aplikatuz, hiru ideia nagusi nabarmendu ziren:*

- 1. Ondo prestatutako gizartea izateko beharra.*
- 2. Zientzia kontrastearen eta lankidetzaren bidez garatzea.*
- 3. Modu ekitatiboan banatuko den oparotasuna sortzea ahalbidetzen duten sistema demokratikoak bultzatzea.*

*Gai horiek guztiak lotura sendoa dute ideia kooperatiboekin.*

*Jose Luis Jimenez Brea  
ALEko kidea*